

MAILAREN DEFINIZIOA

Tarteko maila honek **B1** gaitasun mailaren ezaugarriak izanen ditu, maila hori Hizkuntzen erreferentzi marko europar bateratuan definitzen den moduan.

Tarteko maila honek aditzera ematen du hizkuntza nolabaiteko segurtasunarekin eta malgutasunarekin erabiltzen dela, bai hartzaile eta bai sortzaile gisa eta bai hizkuntza desberdinen arteko bitarteko lana egiteko ere, eguneroko egoeretan eta ez hain arruntetan ere, zeinetan beharrezkoa den testuak hizkuntza estandarrean sortzea, egitura normalekin eta hiztegi arrunt eta ez oso idiomatikoa erabiliz, gai orokorren, egunerokoen edo interes pertsonalekoen gainean.

HELBURU OROKORRAK

1. IKASLEA GIZA ERAGILE DEN HEINEAN

1.1. Oinarrizko beharrekin zerikusia duten eguneroko transakzioak burutzea

- 1.1.1. Transakzioak burutzeko beharrezkoak diren erabilera handiko informazio iturriak nolabaiteko erraztasunez erabili eta behar duen informazioa duten pertsonekin izan dezakeen interakzioan xehetasun eta doitasunak lortzea.
- 1.1.2. Kontsumo-ondasunak lortzean, zerbitzuak erabiltzean edo gestioak egitean, zailtasunei aurre eginez, ematen diren egoera gehienetan aurki ditzakeen pertsonekin eman daitekeen interakzioan modu eragingarrian moldatzen jakitea.
- 1.1.3. Eman zaizkion zerbitzuengatik poza edo nahigabea eta balorazio egokiak, ohikoak direnak, transakzioak egindakoan adieraztea.

Transakzioek honako ezaugarriak dituzte:

- Oinarrizko biziraupenetik aldentzen diren beharrekin zerikusia dute: denda batean dirua itzultzeko eskatzea, produkturen bat lortzeako tratuan aritzea, jatetxe bateko zerbitzariaren azalpenak ulertzea, kexak azaltzea, bidaia eta hauen antolaketan moldatzea, telefonoz hitzorduak eskatzea, botiketan kontsultak egitea, kotxea alokatzea, polizian salaketak egitea, e.a.
- Transakzioak, batez ere, salerosketak egiten diren lekuetan (dendetan, supermerkatuetan,...), ostalaritza (hotelak, jatetxeak,...), osasuna (ospitaleak, kontsultategiak, botikak,...) zerbitzu publikoak (administrazioko bulegoak, komisaria, postetxeak,...), bankuetxeak, alokairuko bulegoak (pisuak, ibilgailuak, ...) edo aiserako lekuak (zinemak, museoak,...).

- Transakzioek nolabaiteko zailtasuna duten gestioak egitea eskatzen dute, etxe bat alokatzeak edo lana bilatzeak eskatzen dituzten modukoak, zenbait tramite administratibo egitea (bizileku-baimena edo lan-baimena,...) edo autoritateen esku-ahartzea eska dezaketen ezustekoei aurre egitea (istripuak, salaketak, arau-haustekak,...).

Mailaren deskribapen orokorra

B1 maila duten ikasleak/ek:

- Ikasitako hitz, egitura eta formula multzo zabal baina errazei etekina ateratzeko gauza dira;
- Euskal kulturari dagozkion ezagupenak jokoan jartzen ditu (erreferentzia kulturalak, arauak, konbentzio soziokulturalak,...) zenbait transakziori aurre egiteko.
- Erregistro neutroa erabiliz, modu egokian komunikatzen da eta egoera ezberdinetan moldatzeko beharrezkoa den malgutasuna erakusten du.
- Nolabaiteko zuzentasunez adierazten du, nahiz eta esan behar duena pentsatzeko etenak izan eta akatsak egin, batez ere ezusteko egoera eta tentsioa sortzen duten egoeretan.
- Zerbait esan duenari esandakoa argitu edo garatzeko eskatzeko gauza da.
- Bidaia baten antolaketan edo bere garapenean edo komertzioetan, kotxeak alokatzeko agentzietan, postetxeetan, bankuetxeetan eta abarretan, hain ohikoak ez diren egoeretan behar diren transakzioak egiteko gauza dira.
- Kexak azaltzeko eta ezusteko egoeretako xehetasunak emateko gai dira (lapurretak, istripuak, ...).

1.2. Ikaslea integratzen den giza, lan komunitatean edo komunitate akademikoaren barruan, elkarreraginetan parte hartzea

- 1.2.1. Egoera sozial ezberdinetan egokitasunez parte hartzea, eta, era berean, integratzen den komunitatean berezko arauen arabera (bisitei, jan-edanei, gonbidapenak onartu edo ez onartzeari... dagokienez) jokatzeko.
- 1.2.2. Interes orokorreko zein pertsonalerako gaiei buruzko sentimentuak eta desioak, bizipen pertsonalak, ikuspuntuak, iritziak trukatzeko.
- 1.2.3. Giza, lan komunitatean edo komunitate akademikoan kide den heinean, hartu dituen erantzukizunen araberrako betebeharrak burutzeko, hala nola batzarre edo mintegietan parte hartzea, aurkezpenak egitea, jarraibideak eman eta jasotzea, dokumentazioa eta eskuliburuak erabiltzea, txostenak, gutunak eta abar idaztea.

Giza elkarreraginek honako ezaugarriak dituzte:

- Eremu pertsonal, publiko, profesional eta akademikoen barruan gertatzen dira.
- Ikaslea murgilduta dagoen komunitate akademikoan eta lan, giza edo auzoko komunitatean integratzea dakarte. Era berean, komunikazio-truketan eta erabakiak hartzeko orduan partehartze eraginkorra ere badakarte.
- Kanal ezberdinen bidez, informazioa eta ideia konkretu edo abstraktuak –zailak nahiz errazak- trukatzea dakarte. Betiere jorratzen diren gaiak ikaslearen espezialitatekoak edo ikaslearentzat ezagunak badira.

Mailaren deskribapen orokorra

B1 maila lortzen duten ikasleak/ek

- Nahiko baliabide linguistiko zein ez linguistiko dituzte parte hartzen duten egoera sozialetan egokitasunez jokatu eta moldatzeko;
- Eguneroko gai arruntei (familia, lana, zaletasunak eta interesak, bidaiak eta gaurkotasun handiko gertakariak) aurre egiteko moduko nahiko lexiko, egitura gramatikal, ikasitako formula eta funtzio linguistikoen zerrenda zabal baten jabe izango dira;
- Aurreikusi ezin diren egoerak deskriba ditzakete, ideia edo arazo baten nondik norako nagusiak azal ditzakete, eta gai abstraktu edo kulturei buruzko sentimenduak edo pentsakizunak, ahoz zein idatziz, zehaztasun handiz adieraz ditzakete;
- Kortesia-arau garrantzitsuez ohartzen dira. Era berean, ikasleen komunitatean eta komunitate berrian indarrean dauden sinesmen, balore, jarrera, erabilera eta ohituren arteko desberdintasun nagusiak atzematen dituzte;
- Mintzatzean duen zuzentasun maila nahiko handia da, nahiz eta batzuetan zalantzak izan, itzul-inguruka ibili, akatsak egin eta, lexikoan dituen mugek errepikapenak eta, batzuetan, esateko orduan zailtasuna eragin;

1.3. Ikaslearen interes, gustu eta zaletasun eta bere espezialitatearen alorreko gaiekin erlazionatutako testu idatzi nahiz ahozkoekin moldatzea.

- 1.3.1. Testuetan ideia nagusiak jasotzen dituzten proposizioak eta xehetasunak jasotzen dituztenak bereiztea.
- 1.3.2. Testuak dakarren informazioa adieraztea: ideia nagusiak eta bigarren mailakoak eta haien arteko harreman hierarkikoa.

1.3.4. Erabiltzen dituen ahozko eta idatzizko testuez balorapenak egitea.

Testuek honako ezaugarriak dituzte:

- Testuak gutxieneko ikasketak dituen hartzaileari zuzenduak daude.
- Testuek egituraketa argia dute, bai formari bai mamiari dagokionez.
- Orokorrean, testuek duten informazioa agerikoa da, nahiz eta sakonekoa izan daitekeen, betiere esanahia ulertzea erraza bada.
- Testu gehienak bertako hiztunek idatziak dira, eta ulertzeko komunitate horretako kltur ezaugarri batzuk ezagutzea beharrezkoa izan daiteke.
- Testuek, ahozkoak direnean, zarata gutxi dute, ahoskera estandarra edo estandarretik oso hurbil, eta erritmoa ez da oso bizia izango.

Mailaren deskribapen orokorra

B1 maila lortzen duten ikasleak/ek

- Bertako hiztunek euskara batuan ekoizten dituzten benetako testuei aurre egiteko gai dira;
- Katalogo eta dokumentu ofizial laburrekin ongi moldatzen dira. Testu luzeagoak eta zailagoak ere erabil ditzakete, testuok eguneroko gaiei (ikaslearen interes pertsonalekoak edo haien espezialitatekoak) badagozkie.
- Egitura argia duen diskurtsoa behar dute, eta, ahozkoa bada, argi ebakita eta doinu estandarra duena izan behar da;
- Testuetatik informazio zehatza, baita teknikoa ere, erraza eta ezaguna bada, ateratzeko gai dira. Bestetik, testuen ildo nagusiak, baita zehaztasun batzuk ere atzeman ditzakete;
- Testuko zati ezberdinetako informazioa erabil dezakete, eginbehar jakin bati heltzeko, eta beste pertsona bati testuaren ildo nagusiak helarazteko moduko laburpen errazak egiteko –iturri ezberdin batzuk erabili behar baditu ere-;
- Ikaslearen interes pertsonaleko gaiak dituzten telesaioak ulertzeko gauza dira – betiere ahoskera garbia eta estandarra bada, eta irudiak lagun dituela-. Era berean, akzioarekin eta irudiekin argumentua segitzen laguntzen duten filmak ere ulertzeko gai dira;

2. IKASLEA KULTURARTEKO HIZTUN DEN HEINEAN

Kultur aniztasunaren ikuspegia

- 2.1. Kultur aniztasunaz eta norberaren identitateak gainerako kulturak ulertzeko moduan izan dezakeen eraginaz ohartzea.
 - 2.1.1. Kultura guztiek beren artean antzekoak edo ezberdinak izan daitezkeen osagai komunak (pertzepzioak, baloreak, portaerak...) dituztela ohartzea.
 - 2.1.2. Norberaren identitate kulturala ulertzeko moduak (sinesmenak, galbehe kulturalak, aurreiritziak, estereotipoak eta topikoak, jarrera etnozentrikoak...) errealitate berrira hurbiltzean norainoko eragina duela konturatzea.

Helburu honek honako hau eskatzen du:

- Beste kultura batzuetara hurbiltzea eragozten duten aurreiritziak, estereotipoak eta sinesmenak zein diren jakin eta aurre egiteko asmoz, ikasleek, behar diren estrategiak martxan jarritz, ezagupenak, jarrerak eta trebetasunak bereganatu eta abiarazi.
- Ikasleak behaketa eta konparazio-prozedurak erabiltzen ohitaraztea. Prozedura hauei esker, kultura berriekin harremanetan jartzeko orduan, ikasleek aurreiritzi, estereotipo eta baldintzatzaileak gabeko ikuspegi kultural zabala bereganatuko dute.
- Taldeko ikaskideekin esperientziak trukatzeko, eta irakasleak nahiz ikasmaterialek ematen dituzten orientabideak betetzea.

Jarreraren eta alderdi afektiboen zeregina

- 2.2. Ikaslea beste kultura batzuetara orokorrean, eta euskal kulturara bereziki hurbiltzera daramaten motibazioak, jarrerak eta alderdi afektiboak bere buruarengan aurkitzea.
 - 2.2.1. Ikaslea beste kultura batzuetara orokorrean, eta euskal kulturara bereziki hurbiltzera daramaten itxaropenak, desioak, interesak...identifikatzea.
 - 2.2.2. Beste kultura batzuen aurrean orokorrean, eta euskal kulturaren aurrean bereziki, norainoko sentsibilitatea eta ikuspegi zabala duen ohartzea.
 - 2.2.3. Anbiguetatea ez onartzeak eta estres kulturalak ikas-prozesuetan eta kultura ezberdinen arteko komunikazioan izan dezaketen ondorioak identifikatu eta baloratzea.

Helburu honek honako hau eskatzen du:

- Behatu, hausnartu eta aztertzeko prozeduretata ohitzea, beste kultura batzuekiko interesa, jakinmina, ikuspegi zabaltasuna, enpatia eta sentsibilitatea indartzeko, eta hizkuntzen nahiz kulturen arteko gatazkak arintzeko.
- Alde batetik, ezagunaren eta berriaren arteko kontrastean, eta bestetik, beste kultura batzuetara orokorrean eta euskal kulturara bereziki pixkanaka hurbiltzean oinarrituko dira norberaren jarrerak eta motibazioak.
- Taldeko ikaskideekin esperientziak trukatzeko, eta irakasleak nahiz ikasmaterialek ematen dituzten orientabideak betetzea.

Kultur erreferenteak

2.3. Herriko kultur erreferenterik ezagunenak zein diren jakitea.

- 2.3.1. Herriko alderdi kulturaleri buruzko oinarrizko informazioa lortzea. Alderdi kultural hauek orokorrenak eta ezagunenak izango dira ; hala nola ezaugarri geografiko, demografiko eta ekonomiko nagusiak.
- 2.3.2. Herri honetako entzute handiko gertaerak eta kultur ondasunak zein diren jakitea, azaletik bederen ; hala nola artistak, artelanak, gertaera historikoak, nolabaiteko oihartzun sozial edo politikoa izan duten pertsonak...

3. IKASLEA IKASTUN AUTONOMO DEN HEINEAN

Ikas-prozesuaren kontrola

3.1. Bere ikas-prozesuaren kontrola norainokoa den ohartzea.

3.1.1. Ikas-prozesu autonomoa zer arlotan eta noraino burutzen duen ohartzea.

3.1.2. Hizkuntzak ikasteko orduan, ikaslearen beraren profila zehazten duten ezaugarriak identifikatzea.

Helburu honek honako hau eskatzen du:

- Ikasleak bere ikas-prozesuaz hausnarketa egiteko, eta bere ebaluatzeko baliabideak garatu behar ditu. Baliabide hauei esker, ikas-prozesuaren aurrean dauden modu ezberdinak identifikatu eta baloratuko ditu. Era berean, ikas-prozesua baldintzatu ahal duten alderdiak (jarrerak, perzeptzioak, sinesmenak, joerak, ikas-estiloak) identifikatuko ditu, eta gainera alderdi horiek guztiak kontrolatu ahalko ditu.
- Taldearekin esperientziak trukatuko ditu.

- Irakasleak eta ikasmaterialek ematen dituzten orientabideak beteko dituzte, beharrezkoak diren ezagutzak, baliabideak eta jarrerak ikas-prozesuan uztartu eta garatzeko.

Ikas-prozesua planifikatzea

- 3.2. Ikasleak, azaletik bederen, argi izan behar du noraino ailegatu nahi duen euskara ikastea, eta noraino erabili nahi duen hizkuntza hau (euskara). Era berean, bere ikas-prozesuaren ibilbide hori erlazionatu beharko du programazioaren helburu, edukin, metodologia eta ebaluazioarekin.
 - 3.2.1. Ikasleak ikasteko eta euskaraz komunikatzeko beharrak identifikatuko ditu, eta noraino ailegatu nahi duen, azaletik bederen, argi izango du.
 - 3.2.2. Ikas-prozesuan ikasleak berak ezarritako helburuak eta euskararen erabilera erlazionatuko ditu programazioan finkatzen diren helburu eta edukiekin.
 - 3.2.3. Gela barruan nahiz kanpoan burutzen diren zereginak (pedagogikoak eta mundu errealarari dagozkionak) nola eraman behar diren aurrera konturatzea.
 - 3.2.4. Autoebaluaziorako prozedura eta baliabideetara ohitzea. Eta ebaluatzeko beste era batzuetatik (irakasleak egiten duen ebaluazioa, ebaluazio kooperatiboa...) ateratzen diren emaitzak konparatzea.

Helburu honek honako hau eskatzen du:

- Hizkuntzak ikasteko eta erabiltzeko beharrak, desioak eta motibazioak aztertzea.
- Ikasleak berak hizkuntzak orokorrean, eta euskara bereziki, nola ikasten dituen hausnarketa egitea.
- Ikasleak euskara ikasteko eta erabiltzeko egoerak, eremuak... etengabe bilatu eta sortzea.
- Ikasleak izan dituen aurrerapenen erregistroa eramatea.
- Gainerako taldekideekin esperientziak trukitzea.
- Ikasleak eta ikasmaterialek ematen dituzten orientabideak betetzea.

Baliabideen kudeaketa

- 3.3. Ikasteko dauden baliabideak ikasleak berak kudeatu ahal dituela ohartzea.
 - 3.3.1. Bere kasako edo autozuzendutako ikas-prozesuan dauden baliabideak identifikatzea.

3.3.2. Bere kasako edo autozuzendutako ikas-prozesua bultzatzeko plangintza batzuekin probak egitea.

Helburu honek honako hau eskatzen du:

- Ikasleak bere kasako edo autozuzendutako ikas-prozesua aurrera eramateko dituen baliabide eta aukerak aurkitzea; hala nola kontsultarako material eta iturriak, euskara ikasteko dauden egoeretan murgiltzea.
- Euskara ikasi eta erabiltzen ematen den denborari ahalik eta probetxu gehien ateratzeko bideak erabiltzen ohitzea.

Ikasteko dauden moduen erabilpen estrategikoa

3.4. Estrategia hitza zer den ohartu, eta ikasbideekin probak egitea, betiere jarraibide batzuk emanda.

3.4.1. Estrategia hitza zer den jakitea.

3.4.2. Edukiak bereganatzeko dauden bide estrategikoekin probak egitea, betiere jarraibideak emanda.

3.4.3. Klaseko lana burutzeko momentuan, prozedura metakognitiboekin (planifikazioa, egitea, ebaluazioa eta zuzenketa) probak egitea, betiere jarraibideak emanda.

Helburu honek honako hau eskatzen du:

- Ikas-prozesuan zehar martxan jar daitezkeen estrategiak erabili eta garatzeko dauden hausnarketa, introspekzio eta azterketetarako prozeduretara ohitzea.
- Edukiak bereganatzeko prozedurekin probak egitea.
- Estrategiak erabili eta gaitasunak garatzera daraman prozesu kontzientea (planifikazioa, egitea, ebaluazioa eta zuzentzea) aurkitu eta probatzea.
- Gainerako taldekideekin esperientziak trukitzea.
- Ikasleak eta ikasmaterialek ematen dituzten orientabideak betetzea.

Alderdi psikoafektiboen kontrola

3.5. Ikas-prozesuan eragiten duten alderdi psikoafektiboak identifikatzea, eta era kontzientean kontrola daitezkeela ohartzea.

3.5.1. Hizkuntzak ikasteari dagokionez, ikasleak bere buruaz duen iritziaz jabetzea.

3.5.2. Ikas-prozesuan eragiten duten alderdiez (motibazioa, egonezina, arriskuak hartzeko ahalmena, akatsen aurrean duen jarrera...) ohartzea, eta alderdi hauek era kontzientean kontrolatzeko probak egitea.

Helburu honek honako hau eskatzen du:

- Introspekzio, hausnarketa, azterketa eta abarretarako prozeduretara ohitzea. Horrela, hizkuntza baten ikasle eta erabiltzaile den heinean, ikasleak bere buruaz iritzi ona izango du. Era berean, ikas-prozesuan eragina duten barne nahiz kanpo-estimuluak indartuko ditu. Eta arriskuak hartzeko ahalmena, nahiz eta akatsak ezinbestean egin, garatuko du.
- Gainerako taldekideekin esperientziak trukatzeta.
- Ikasleak eta ikasmaterialek ematen dituzten orientabideak betetzea.

Taldearekin elkarlanean aritzea

3.6. Taldekideekin eta irakaslearekin elkarlanean aritzea, taldean lankidetzeta, amultsutasun eta konfiantza-erlazioak sortu eta iraunarazteko.

3.6.1. Taldearen barruan lan egiteko, giro ona sortu eta iraunarazten duten mekanismoak lortzea.

3.6.2. Taldeka eraginkotasunez lan egiteko bideak urratzea.

Helburu honek honako hau eskatzen du:

- Sentimentuak, sinesmenak eta pertzepzioak taldearekin trukatzeta.
- Taldekideen ekarpenak baloratzea.
- Egin behar den lana eraginkortasunez egin ahal izateko moduetara ohitzea.
- Ikasleak eta ikasmaterialek ematen dituzten orientabideak betetzea.

TREBETASUN BAKOITZAREN HELBURU OROKORRAK ETA BERARIAZKOAK

A) Ahozkoaren ulermena.

- Helburu orokorra:

Zentzu orokorra, funtsezko informazioa, puntu nagusiak eta xehetasun garrantzitsuenak ulertzea egitura garbiko eta hizkuntza estandarreko ahozko testuetan, geldiro ahoskatuak eta ahoz nahiz baliabide tekniko baten bidez transmitituak, betiere baldintza akustikoak onak badira eta esandakoa berriz aditzeko aukera badago.

- Berariazko helburuak:

1. Informazio tekniko erraza duten jarraibideak ulertzea, hala nola maiz erabiltzen diren aparatuen funtzionamenduko jarraibideak, eta indikazio xehekatuak segitzeko gauza izatea.
2. Lagun arteko elkarrizketa edo eztabaida bateko ideia nagusiak ulertzea, betiere diskurtsoa argi artikulatua badago eta hizkuntza estandarrean sortua.
3. Elkarrizketa formaletan eta lan bilkuretan, esandakoaren parte handixkoa ulertzea gaia norbere espezialitatearen ingurukoa bada eta mintzakideak erabileria idiomatikoegirik gabe eta argi ebakiz aritzen badira.
4. Zure aurrean gertatzen den eztabaida luze bateko ideia nagusiei oro har antzematea, betiere diskurtsoa argi artikulatua bada eta hizkuntza estandarrean emana bada.
5. Oro har ulertzea eguneroko gaien gaineko hitzaldi eta aurkezpen erraz eta laburrak, betiere ebakera estandarra eta argia bada.
6. Irrati nahiz telebistan, eguneroko gaiak edo interes pertsonaleko nahiz laborekoak jorratzen dituzten saio askoren ideia nagusiak ulertzea, artikulazioa nolabait geldia eta argia bada.
7. Irratiko berrien eta bestelako material grabatuen ideia nagusiak ulertzea, gaia egunerokoa bada eta nolabait geldiro eta argi ebakitzen bada.
8. Film asko ulertzea, ebakera argia badute eta hizkuntza maila erraza, baldin ikusizko elementuek eta ekintzak argumentuaren zati handi bat erakusten badute.

B) Ahozko adierazmena eta elkarreragina.

- Helburu orokorra:

Ahozko testu ongi antolatu eta mintzakidearendako zein komunikazio helbururako egokiak produzitzea, behar adinako zuzentasuna, jarria eta espontaneitatea

erakutsiz, elkarreragina ez eteteko moduan, nahiz eta batzuetan atzerriko azentua, diskurtsoa planifikatzeko edo hutsak zuzentzeko etenak agertzen diren, eta mintzakideen aldetik laguntza pixka bat beharrezkoa bada ere.

- Berariazko helburuak:

1. Jendaurreko azalpen labur eta entseatuak egitea eguneroko bizitzako gai baten gainean eta bere arloaren barruan. Azalpenak ulergarriak izanen dira, nahiz eta atzerriko azentu eta intonazio bistakoak erabili.
2. Aurkezpen labur eta prestatua egitea bere espezialitatearen barruko gai baten gainean, denbora gehienez aparteko zailtasunik gabe segitu ahal izateko moduan, ideia nagusiak behar adinako zehaztasunarekin azalduz, eta entzuleen galdera osagarriei erantzutea, nahiz eta batzuetan errepikatzeko eskatu behar izan, agudo hitz egiten denean.
3. Eguneroko bizitzako harreman arruntetan moldatzea, hala nola bidaiak, ostatua, jatekoa eta erosketak.
4. Informazioa trukatu, egiaztatu eta konfirmatzea behar bezain xehero. Egoera ez hain arruntei aurre egin eta arazo baten arrazoia azaltzea.
5. Aurrez aurreko solasaldiak hasi, mantendu eta bukatzea eguneroko bizitzako, interes pertsonaleko edo eguneroko bizitzarako ardurakoak diren gaien gainean (adibidez familia, zaletasunak, lana, bidaiak eta gaurko gertaerak).
6. Nolabaiteko konfiantzarekin informazio zehatza trukatzeko, egiaztatzea eta konfirmatzea norbere espezialitatearen barruko gai eguneroko nahiz ez egunerokoen gainean. Narrazio, artikulu, hitzaldi, eztabaida, elkarrizketa edo dokumental laburren gainean iritzia ematen eta xehetasunak eskatzen dituzten galdera osagarriei erantzutea.
7. Lagun arteko solasaldietan, ikuspuntu eta iritzi pertsonalak ematea edo eskatzea intereseko gaien gainean eztabaidatzean. Gai praktikoetarako izan litezkeen arazo edo kontuen soluzioen gainean edo egin beharreko urratsen gainean norbere iritziak edo erreakzioak ulergarri egitea (nora joan, zer egin, nola antolatu ospakizun bat, adibidez txango bat), eta besteei gonbit egitea jokatzeko moduari buruz beren iritzia eman dezaten; gertaerak eta esperientziak, ametsak, esperantzak eta anbizioak deskribatzea; modu adeitsu adierazteak, iritzia, adostasunak eta desadostasunak, eta norbere iritziak eta proiektuak laburki azaldu eta zuzentzea.
8. Eztabaida formalean eta lan bilkura ohikoetan parte hartzea, zeinetan gertaera zehatzen gaineko informazioa trukatzeko den edo problema praktikoetarako jarraibideak edo soluzioak ematen diren, eta haietan ikuspuntu bat argiro ematea, iritzi, plan eta egintzak laburki azalduz eta arrazoituz.
9. Elkarrizketa eta kontsultetan (adibidez, gai berri bat planteatzeko) ekimena hartzea, nahiz eta elkarreraginean elkarrizketatzailearen mendean egon, eta

prestatutako galdetegi bat erabiltzea elkarrizketa egituratua egiteko, zenbait galdera osagarri eginez.

C) Irakurriaren ulermena.

- Helburu orokorra:

Zentzu orokorra, funtsezko informazioa, puntu nagusiak eta xehetasun ardurakoenak ulertzea testu idatzi argi eta ongi antolatuetan, hizkuntza estandarrean idatziak eta gai orokorren, gaurkoen edo norbere espezialitatekoen ingurukoak badira.

- Berariazko helburuak:

1. Aparatu bat erabiltzeko jarraibide errazak eta argiro idatziak ulertzea.
2. Egunero erabiltzen denaren gisako material idatzian informazio garrantzitsua bilatu eta ulertzea, adibidez gutunetan, katalogoetan eta agiri ofizial laburretan. Testu bateko edo bat baino gehiagotako zati desberdinetatik informazioa biltzea, berariazko ataza bat aurrera eramateko.
3. Gertaeren eta sentimenduen deskripzioa ulertzea gutun pertsonaletan, eta ulertu ere, behar adina ongi, atzerriko lagun batekin gutun truke erregularra egiteko moduan.
4. Egunkarietako artikuluko errazetako ideia esanguratsuak ulertzea, baldin eguneroko gaien gainekoak badira, eta argudiozko testu baten ondorio nagusiei antzematea.

D) Idatzizko adierazmena eta elkarreragina.

- Helburu orokorra:

Eguneroko gaien edo interes pertsonaleko gaien gainean testu erraz eta kohesionatuak idaztea, haietan informazioa eskatuz edo emanaz, historiak kontatuz, esperientziak deskribatuz, gertaerak deskribatuz, benetakoak izan nahiz irudimenezkoak, sentimenduak, erreakzioak, nahiak eta helburuak adieraziz, iritziak laburki justifikatuz eta planak azalduz.

- Berariazko helburuak:

1. Deskripzioak eta kontaerak idaztea, hala nola bidaia bat edo benetako nahiz asmatutako gertaera bat, bai eta esperientzien kontaerak ere, sentimenduak eta erreakzioak deskribatuz, testu erraz eta egituratuetan.
2. Oharrak idaztea, horietan informazio erraz eta berehalakoa helarazi edo eskatzeko, garrantzizko osagaiak nabarmenduz.

3. Gutun pertsonalak idaztea irudipenak, sentimenduak eta gertaerak aski xehero deskribatzeko eta informazioa eta ideiak trukatzeko bai gai konkretuen bai abstraktuen gainean, garrantziko alderdiak agertuz, arazoan gainean galderak eginez eta behar bezain zehazki azalduz.
4. Txosten labur-laburrak idaztea formatu konbentzionalean, gertaera arrunten eta zenbait egintzaren arrazoen gaineko informazioa helarazteko.
5. Hitzaldi erraz batean oharrak hartzea, garrantziko alderdien zerrenda bat eginez, baldin eta gaia ezaguna bada eta diskurtsoa modu errazean eta argiro artikulatuan egiten bada.
6. Iturri askotako zati laburrak laburtzea, eta pasarte idatzi laburren parafrasia egitea, jatorrizko testuaren hitzak eta hurrenkera erabiliz.

Edukiak eta gaitasunak

Aurreko atalean aipatutako helburuak lortzeko ikasleak garatu beharko dituen gaitasun partzialei buruzkoak dira edukiak.

Eduki horiek ondoren atal banatan zerrendatzen dira, nahiz eta benetako komunikazio egoeretan gaitasun partzial guztiak aldi berean erabiltzen diren. Horregatik ikas eta irakats prozesuan, osotasun esanguratsu batean integratu beharko dira, trebetasun bakoitzerako proposatu helburuak abiaburu hartuta, halatan non ikasleak behar dituen gaitasun guztiak bereganatuko dituen proposatutako komunikazio jarduera eta eginkizunen bitartez.

1. Gaitasun orokorrak.

1.1. Eduki nozionalak.

Ondoren datorren eduki nozionalen zerrendan oinarrizko kontzeptuak sartzen dira. Haietatik, dagozkien azpikategoriak aterako dira, mailarako eta hizkuntzarako behar diren adierazleekin.

1.1.1. Entitatea.

Entitateak adieraztea eta haien erreferentzia egitea; zehaztapenak, galdera erlatiboak, orokortzeak.

1.1.2. Tasunak.

a) Existentzia: izan / ez izan, presentzia / absentsia, disponibilitatea / ez disponibilitatea.

b) Kopurua: zenbakiak (zenbakarriak, neurriak, kalkuluak), kopurua (osoa, partziala), Gradua (zenbakitan graduatzea, kopuru mugagabeak, adjektiboan / adberbioan).

c) Nolakotasuna:

- Tasun fisikoak: forma, tenperatura, kolorea, materiala, konsistentzia, hezetasuna, ikusgarritasuna, ikusmena, tasun akustikoak, zaporea, usaina, adina, egoera ikusgarria.

- Tasun psikikoak: prozesu kognitibok, sentimenduak (txera, kutuntasuna, maitasuna, gorrotoa, zoriona, satisfazioa, esperantza, desilusioa, beldurra, kilikadura, haserrea), nahia (erabakiak, asmoak).

- Balorazioa: prezioa, balioa, kalitatea, estetika, onargarritasuna, egokitasuna, zuzentasuna, benetakotasuna, normaltasuna eta salbuespena, nahia (nahiagotasuna, esperantza) baliagarritasuna, garrantzia, beharra, aukera, gaitasuna, zailtasuna, arrakasta.

1.1.3. Erlazioak.

a) Espazioa (espazioan absolutuki eta erlatiboki kokatzea):

- Posizioa: egonean, tokia (mugatu gabea, mugatua, kanpoko / barnekoa, horizontala / bertikala) posizio erlatiboa (zehatza, hurbileko ingurunearekiko (urruna, puntu kardinalakiko), hurbiltasuna / urruntasuna.
- Mugimendua, norabidea: mugimendua eta tokialdatzea, mugimendua eta garraioa, mugimenduaren norabidea (horizontala, bertikala), xedea, norabidea, jatorria, bidea.
- Dimentsioak, neurriak: tamaina, luzera, azalera, bolumena, pisua.

b) Denbora (denboran barnako toki absolutua eta erlatiboa):

- Momentu puntuala, espazioa: segundoak, orduak, eguna, egunaren momentua, asteko eguna, jai eguna, hila, urtaroa, data, etab.
- Denbora harremanak (lehenago, aldi berean, ondoren).
- Puntualitatea / inpuntualitatea.
- Iraupena, hasiera, igarotzea, bukaera, aldaketak, iraunkortasuna, abiada, maiztasuna, errepikazioa.

c) Egoerak, prozesuak eta jarduerak (aspektua, modalitatea, parte-hartzaileak eta haien harremanak).

d) Harreman logikoak (egoeren, prozesuen eta jardueren artean):

- Egintzaren, gertaeraren harremanak: egilea, objektua, hartzailea, tresna, modua.
- Predikazioa.
- Antzekotasun harremanak (identitatea, konparazioa, korrespondentzia, diferentzia).
- Jabetasuna: posesioa (jabea, jabetza, aldaketa), zatia, osotasuna.
- Konjuntzioa.
- Disjuntzioa.
- Barne-hartzea /kanpo-uztea
- Aurkaritza, mugatzea.
- Kausatasuna: kausa, jatorria, ondorioa, efektua, helburua.
- Baldintza.
- Dedukzioa, ondorioa.

1.2. Eduki soziokulturalak.

Ikasleak ikasten duen hizkuntzan hitz egiten duten erkidegoen gizarte eta kulturaren gaineko ezagupen bat beretu beharko du, horretan batere gaitasunak ez izateak askotan komunikazioa trabatzen baitu. Alderdi hauek garatzeko erabiltzen diren lexiko eta egiturak oinarrizko mailaren helburuen arabera izan behar dira.

Eduki hauek ez dute zertan nahitaez programazioaren zati esplizitua izan, gehienak arlo tematiko desberdinen osagai gisa agertuko baitira, arlo horiekin guztiekin nahasten baitira. Horrenbestez, arreta jarri beharko zaie material didaktikoak itxuratzerakoan.

Honako arloak hartuko dira kontuan:

Eguneroko bizitza:

- Orduak eta jateko ohiturak.
- Gastronomia: plater tipikoak.
- Lanarekin lotura duten orduak eta ohiturak.
- Ospakizun, zeremonia eta festa aipagarrienak.

Aisia jarduerak:

- Zinearen mundua.
- Kirol tipikoak.
- Kirol gertaerak.
- Komunikazio bideak.

Giza eta gizarte harremanak:

- Familia bizitzako aztura eta ohiturak.
- Familia barrego, belaun barrego eta lanbideko harremanak.
- Gizarte taldeen arteko harremanak.
- Administrazioa eta beste instituzioak.

Lan eta bizitza baldintzak:

- Lan munduaren atarian.
- Lana bilatzea.
- Hezkuntza.
- Gizarte segurantza.
- Osasun eta higieneko ohiturak.

Balioak, sinesmenak eta jarrerak:

- Oinarrizko balio eta sinesmenak.
- Tradizio nagusiak.
- Umore zentzuaren ezaugarri oinarrizkoak.
- Arte eta kulturako erreferente esanguratsuak.

Gorputz hizkuntza:

- Keinuak eta posturak.
- Hurbiltasuna eta ikusizko kontaktua.

Gizarte konbentzioak:

- Portaeraren gaineko konbentzio eta tabuak.
- Gizalege arauak.

Oinarrizko geografia:

- Klima eta ingurumena.
- Hizkuntza horretan hitz egiten duten herrialde nagusiak eta hiri ezagunak.

Geografiak hizkuntzan duen eragina: hizkuntzaren aldaeren sarrera oinarrizkoa.

2. Komunikazio gaitasunak.

2.1. Hizkuntza gaitasunak.

2.1.1. Eduki lexiko-semantikoak.

Hitz erreperitorioak eta hiztegi hori behar bezala erabiltzea (produkzioa eta ulermena) maila honetarako zehaztu diren helburuek aipatzen dituzten testuinguruetan. Erreperitorio horiek honako arloak kontuan hartuta garatuko dira:

- a) Identifikazio pertsonala: eremu pertsonal eta publikoan eguneroko bizitzako egoeretan jokatzeko behar diren datu pertsonalak. Adiskide zein ezagunekin, eta atzerriko herrietara egindako turismo bidaietan.
- b) Etxebizitza, etxea eta ingurua: etxea, hiria, landa, herrialdea.

- c) Eguneroko bizitzako jarduerak: eguneroko errutina, lanak eta lanbideak, askotariko jarduerak.
- d) Denbora libre eta aisia: zaletasunak, jokoak eta kirola, txangoak, jarduera kulturalak, irratia eta telebista, prentsa idatzia, festak, jatetxeak, tabernak, estadioak.
- e) Bidaiak: garraioak, geltokiak, aireportuak, landa, hondartza, mendia, turismoa, oporrak.
- f) Giza eta gizarte harremanak: familia, adiskideak, ezagunak, elkarretaratzeak.
- g) Osasuna eta gorputzaren zainketa: ajeak, istripuak, kontsultak.
- h) Hezkuntza eta prestakuntza.
- i) Erosketak eta jarduera komertzialak: dendak, almazenak, merkatuak, bankuak.
- j) Elikadura: dietak, janari tipikoa, janari osasuntsua, janari zaborra.
- k) Ondasun eta zerbitzuak: garraioak, osasuna eta abar.
- l) Hizkuntza: ikasten den hizkuntzak munduaren testuinguruan zer toki hartzen duen.
- m) Komunikazioa: telefonoa, gutunak, posta elektronikoa, Internet.
- n) Klima, eguratsako baldintzak eta ingurumena: urtaroak, egura- tseko fenomenoak, tenperatura.
- ñ) Zientzia eta teknologia.
- o) Politika eta gizarte.

2.1.2. Gramatikako edukiak.

1. Gramatikako edukiak

1.1. Izen sintagma.

1.1.1 Gunea: substantiboa eta izenordaina.

- Substantiboa:

.Motak: zenbakarriak / zenbakaitzak; bizidunak / bizigabeak.

.Generoa: oposizio lexikoarekin (gizon / emakume); bi sexuak adierazteko izen elkartuak erabiltzea (anai-arrebak, aitona-amonak).

.Numeroa: singularra; plurala / plural hurbila (guztiok, ikasleok) mugagabea. Mugagabearen erabilerak.

.Kasua: kasu gramatikalak (absolutiboa, partitiboa, ergatiboa eta datiboa) singular/pluralean, mugagabean eta bukaera - a organikoa, kontsonantea eta diptongoa duten hitzetan.

.Gradua: positibo absolutua (etxe) eta erlatiboa (etxetxo, etxetzar).

- Izenordainak:

.Pertsonalak: neutroak (ni) eta intentsiboak (neu).

.Posesiboak: neutroak (nirea) eta intentsiboak (neurea).

.Erreflexiboak: noren + burua.

.Erakusleak.

.Mugagabeak: (inor/norbait/edonor; ezer (deus), zerbait, edozer).

.Galdegileak / harridurazkoak: (nor, zer).

.Elkarkariak: elkar, bata bestea.

1.1.2. Gunearen aldaketa.

- Eratorpena (aurrizkiak: desberdintasun, ezberdintasun; atzizkiak: hizkuntza) eta elkarketa (seme-alabak, jarleku, kale garbitzaile).
 - Determinatzaileak:
 - .Artikuluak: mugatua eta mugagabea.
 - .Erakusleak.
 - .Zenbatzaileak: mugatuak (kardinalak, ordinalak, zatikiak (arruntenak), ehunekoak, banatzaileak), mugagabeak (zenbat, batzuk, zenbait, asko ...) eta orokortzaileak (dena, guztia, oso).
 - .Aposizioa (Bidasoa ibaia).
 - SAdj bidezko osagarria (hitzeko gizona, indar handiko pertsona, bi urteko umea).
 - Postposizio sintagma baten bidezko osagarria (mahai gainean).
 - Erlatibozko perpausaren bidezko osagarria (-(e)n, -tako / -(r)iko).
- 1.1.3. Osagaien tokia eta komunztadura fenomenoak.
(Det.+) (SAdj.+) (Erlatibozko perpausa+) N (+SAdj.) (+Det.).

1.2. Adjektibo sintagma.

1.2.1. Gunea: adjektiboa.

- Numeroa: singularra / plurala.
- Generoa: kasu bereziak (tontoa / tuntuna).
- Kasua: edutezko genitiboa (Noren) eta tokizko genitiboa (Nongo) singular eta pluralean, mugagabean eta bukaera -a organikoa, kontsonantea eta diptongoa duten hitzetan.
- Gradua:
 - .Positibo absolutua (lodi) eta erlatiboa (lodikote).
 - .Konparatiboa eta superlatiboa (-ago, -egi, -en).

1.2.2. Gunearen aldaketa honakoen bidez:

- Genitiboa elidituz (urte amaiera).
- Adjektibo elkartu eta eratorriak (sudur-luze, ulerterraz, goiztiar).
- Zenbatzaileak adjektiboaren ezker zein eskuinetara (hagitz polita, txiki samarra).
- Marka fonetikoak: xuhur, pollitta, goxo, txuri, edder.
- Errepikatzea (txiki-txikia).

1.2.3. Osagaien tokia eta komunztadura fenomenoak.

(Modifikatzailea+) N (+Modifikatzailea)+Artikulua (oso polita; alfer samarra).

1.3. Aditz sintagma.

1.3.1. Gunea: aditza.

- Sailkapena:
 - .Aditz jokatuak:
 - Sintetikoak: Nor / Nor-nori sistemak (egon); Nor-nork sistema (eduki, ekarri, eraman, jakin, esan) (nor 3. pertsonakoa).
 - Konposatuak edo perifrastikoak: Nor; Nor-nori sistemak (nor 3. pertsonakoa); Nor-nork sistema; Nor-nori-nork sistema eta inpertsonalak.
 - .Aditz jokatu gabeak:
 - Partizipioak: -O, -ta, -(r)ik.
 - Nominalizazioa: -t(z)ea, -t(z)eak, -t(z)erik, -t(z)en, -t(z)eari ...
 - Gerundioa: -t(z)en, -z, -ta / -(r)ik, -la(rik), -ka.

- Aspektua:
 - .Aspektu bukaerarik gabe (-O), perfektiboa (-tu), imperfektiboa (-t(z)en), geroaldikoa (-tuko, -en), puntukaria.
- Denbora:
 - .Orainaldia, lehenaldia eta geroaldia.
- Modua:
 - .Indikatiboa.
 - .Potentzial erreal, hipotetiko eta irreal -ke modu markarekin: Nor; Nor-nork (nor hirugarren pertsonakoa); Nor-nori-nork. Ahal, ezin.
 - .Agintera aditz sintetikoetan (egon, etorri, joan, ibili); aditz perifrastikoetan: Nor (zaitez, zaitetze); Nor-nork (ezazu, ezazue, itzazu, itzazue); Nor-nori-nork
 - .Aditz lokuzioak eta berariazko forma perifrastikoak:
 - .Beharra: behar izan, ezinbestekoa, nahitaezkoa da ... -t(z)ea.
 - .Eginbidea: behar izan, -t(z)era behartu, -arazi; adberbiozko lokuzioak (zutik denok!, alde hemendik!), forma inpersonalak (hau ez da ukitzen!).
 - .Gaitasuna eta baimena: ahal izan, ezin izan, -t(z)eko gai izan, -t(z)ea izan.
 - .Debekua: debekaturik dago ... -t(z)ea, ezin izan.
 - .Probabilitatea: honezkero (goiz abiatu da eta honezkero Madrilan da).
 - .Asmoa: behar izan, nahi izan, -t(z)ekoa izan, -t(z)ekotan egon/izan.
 - .Suposamendua: geroaldikoa (Non da Jon? Bere anaiak jakingo du.).
- 1.3.2. Gunearen aldaketa.
 - Aditz lokuzioak.
 - Modu partikulak (omen, ote, ohi).
- 1.3.3. Osagaien tokia eta komunztadura fenomenoak.
 - Galderazko perpausetan: izenordain galdegilea + aditza.
 - Ezezko perpausetan:
 - .Aditz sintetikoak: (SN) + ez + V + (SN).
 - .Aditz konposatuak: (SN) + ez + laguntzailea + (SN) + erroa.
- 1.4. Adberbio sintagma.
 - 1.4.1. Gunea: adberbioa eta adberbiozko lokuzioak.
 - Adberbio motak:
 - .Sailkapen formala:
 - Bakunak (atzo).
 - Eratorkiak (atzizkiak: -oro (-ero) -ki, -ka, -ro, -ik, -la).
 - Elkartuak (herenegun...).
 - .Sailkapen semantikoa:
 - Denbora eta tokizkoak.
 - Moduzkoak eta intentsiboak (oso, nahiko, samar...).
 - Iritzizkoak.
 - .Kasuaren araberrako sailkapena: inesiboa (non / norengan), adlatibo helburuzkoa eta hurbilduzkoa (nora(ntz) / norengana(ntz)), adlatibo terminala (noraino / norenganaino), adlatibo destinatiboa (norako / norenganako), ablatiboa (nondik / norengandik), destinatiboa, sozilatiboa, motibatiboa, instrumentala eta prolatiboa singular eta pluralean, mugagabea eta bukaera -a organikoa, kontsonantea eta diptongoa duten hitzetan.

- Adberbiozko lokuzioak (batez ere, noizean behin ...).
- 1.4.2. Gunearen aldaketa.
- Errepikatzea (zabal-zabalik, plisti-plasta ...).
- 1.5. Sintagma postposizionala.
- 1.5.1. Gunea.
- Postposizioak kasu hauekin:
 - .Absolutua edo partitiboa (besterik ezean).
 - .Genitiboa (berrien arabera).
 - .Datiboa (zuri esker).
 - .Instrumentala (umeez gain).
 - .Inesiboa (mendian zehar).
 - .Adlatiboa (gora begira).
- 1.5.2. Gunearen aldaketa.
- Koordinazioa: trafikoa erraztearen alde ala kontra zaude?
 - Lexikalizazioa: mahainguru, jendeaurreko, axolagabe ...
 - Adjektibizazioa: beharren arabera eskakizunak.
- 1.5.3. Sintagmako osagaien tokia.
- (Kasua+) postposizioa (+kasua).
- 1.6. Perpaus bakuna.
- 1.6.1. Perpaus motak:
- Perpaus deklaratuak: baiezakoa eta ezezakoa.
 - Galdegaia. Hitz hurrenkera markatua eta markatu gabea.
 - Galderazko perpausa:
 - .Erabatekoa ezta partikularekin.
 - .Partziala.
 - .Disjuntiboa ala partikularekin.
 - Harridurazko perpausa, bai, erakusleak, ze(r), zein, nolako / zelako eta interjekzioak erabiliz.
 - Aginduzko perpausa.
- 1.6.2. Osagaien tokia eta komunztadura.
- Aditzarekin pertsonarekin eta numeroarekin komunztadura duten osagaien elipsia.
- 1.7. Perpaus konposatua: harreman logikoen adierazpena.
- Perpaus koordinatuak:
 - .Kopulatuak: eta juntagailu kopulatuak; ez.. ez.., bai .. bai.., ..-la ...-la, nahiz.. nahiz.., zein.. zein.., hala.. nola.., ez ezik ..ere, ez bakarrik ..ere korrelazioak.
 - .Disjuntiboak: ala, edo, edota, nahiz, zein juntagailu disjuntiboak; edo... edo...; ala... ala... korrelazioak.
 - .Adbertsatiboak: baina, baizik (eta), baino juntagailu adbertsatiboak.
 - .Banatzaileak: bata.. bestea.., alde batetik.. bestetik.., nolako... halako.., zer ikusi...hura ikasi korrelazioak.
 - Mendeko perpausak:

.Substantiboak edo konpletiboak: -(e)la, -(e)nik, nominalizazioa (-t(z)ea, -t(z)eko ..); zehar galderak: -(e)n, -(e)n ala ez; partizipioarekin (ez dakit zer egin, ez daukagu zer eginik).

.Adjektiboak edo erlatiboak: adizkiak +(e)n; partizipioa +-tako/-riko.

.Adberbialak edo zirkunstantzialak:

.Helburua: -t(z)era, -t(z)eko, -t(z)eko asmotan, -t(z)ekotan, -t(z)eagatik, -t(z)earren.

.Kausa: -(e)lako, eta, bait_, -(e)nez (gero), -(e)la eta, zeren (eta), -t(z)eagatik, -t(z)earren.

.Baldintza: baldintza erreal, hipotetikoa, irreal.

-Adizki jokatuekin: (Baldin) ba + adizki jokatuak: Nor; Nor-nori (nor hirugarren pertsonakoa); Nor-nork (nor hirugarren pertsonakoa); Nor-nori-nork.

-Adizki jokatu gabeekin: Partizipioa + z + gero.

.Kontzesioa:

-Adizki jokatuekin: -n arren, nahiz eta -n, ba ... ere.

-Adizki jokatu gabeekin: partizipioa + arren, nahiz eta + partizipioa, partizipioa + agatik (ere).

.Konparazioa:

-Nolakotasuna: (-n) bezain; (-n) baino ...-ago(a); zenbat eta...-ago(a) orduan/hainbat eta ...-ago(a); ahalik eta ...-en(a).

-Kopurua: (-n) beste; adina; (-n) baino ...gehiago; (-n) baino ...gutxiago; zenbat eta gehiago / gutxiago orduan / hainbat eta ...gehiago / gutxiago; ahalik eta gutxien / gehien.

.Ondorioa: hain, hainbeste, halako ... ezen/non ... bait-/n.

.Denbora erlazioak:

-Lehenagotasuna: partizipioa + baino lehen, aurretik, orduko.

-Ondorengotasuna: partizipioa + eta gero, ondoren, -takoan.

-Berehala: partizipioa + bezain laster/azkar ..., partizipioa + eta berehala.

-Aldiberekotasuna: -(e)nean; -(e)n bitartean; partizipioa + bitartean; -(e)la(rik); -t(z)ean.

-Maiztasuna: -(e)n bakoitzean, gehienetan, guztietan, aldiro.

-Abiaturua: -(e)netik.

-Xedea: -(e)n arte(an), partizipioa + arte(an).

.Moduzkoak:

-Adizki jokatuekin: -(e)n bezala, -(e)n bezalako(a), -(e)n moduan, -(e)n modukoa(a), -(e)n eran, -(e)n neurrian, -(e)nez, ba-... bezala, -(e)naren arabera.

-Adizki jokatu gabeekin: partizipioa + bezala, -t(z)eko moduan, partizipioa + ahala.

- Testuaren lokailuak:

.Kopulatiboak: ere, gainera, bestalde, behintzat, behinik behin, gutxienez.

.Disjuntiboak: bestela, gainerakoan, gainerantzean.

.Adbertsatiboak: ordea, berriz, aldiz, aitzitik, (bien) bitartean, dena dela, dena den, hala (eta guztiz) ere.

.Ondoriozkoak: beraz, hortaz, orduan, honenbestez, horrenbestez, hala.

.Kausazkoak: izan ere, zeren, bada.

2. Ortografiako edukiak

2.1. Idazkuntza sistema: alfabetoa.

2.2. Soinuak eta fonemak grafikoki nola adierazi.

- Geminazioa zenbait izen berezitan: digramak .

- (anbiguo, inpaktu).

2.3. Maileguak moldatzeko arau ortografikoak.

- Hitz hasieran: R-ren aurrean bokala (arropa, errege, erloju).

- Erdian: T epentetikoa (bertso, Bartzelona, defentsa, dantza, poltsa, galtzerdi).

- Bukaeran: -zio (nozio); -sión: -sio (ilusio); -ón: -oi (balkoi); -ado: -atu (estatu).

2.4. Karaktereak bere itxura desberdinetan nola erabiltzen diren: maiuskulak eta minuskulak.

2.5. Ortografiako zeinuak.

- Harridura eta galdera markak perpaus bukaeran bakarrik.

- Gidoia noiz erabili hitz elkartuetan.

2.6. Silabaren egitura. Hitzak lerro bukaeran nola zatitu.

3. Eduki fonologikoak

3.1. Bokal soinuak eta fonemak.

Diptongoak.

3.2. Kontsonante soinu eta fonemak.

- Nola ahoskatu maileguetan.

- Nola ahoskatu .

- Nola ahoskatu .

3.3. Prozesu fonologikoak.

- Bustidura: il[l], in[ñ].

- Epentesia.

- Ahostuntzea.

3.4. Osagai lexiko bakartuen azentua.

Ondareko hitzak eta mailegu moldatuak.

3.5. Azentua eta azentugabetasuna: tonu ereduak sintagman.

Monosilaboak, izenordain posesiboak eta aditz konposatuak.

3.6. Fonetika sintagmatikoa: ez naiz [enaiz], ez luke [eluke], ez zara [etzara], ez dut [eztut].

2.2. Gaitasun soziolinguistikoak.

Hizkuntzaren erabilera ardatz duen hurbilketa batean nahitaez ikertu behar da hizkuntzaren dimentsio soziala. Ikasleek hainbat gaitasun soziolinguistiko bereganatu beharko dituzte kasuko mailan behar adinako trebeziarekin komunikatu ahal izateko. Gaitasun horien artean gizarte harremanetako hizkuntza markatzaileak ezagutu, bereizi eta, hala behar izaten bada, erabiltzea dago: tratamendu formulak, agurrak, gizalege

arauak, herri esapideak (errefrauk, modismoak ...) eta erregistro diferentziak (formala, informala, familiakoa, lagun artekoa ...) dialektoak eta azentuak.

2.3. Gaitasun pragmatikoak.

2.3.1. Eduki funtzionalak.

- a) Ezagupena, iritzia, sinesmena eta aierua aditzera ematearekin lotura duten funtzioak edo mintza-egintzak: baieztatzea; iragartzea; baietz esatea; sailkatzea; zerbait gertatu dela konfirmatzea; deskribatzea; adostasuna nahiz desadostasuna adieraztea, zerbaiten berri baduzula edo ez duzula adieraztea; zalantza adieraztea; iritzi bat ematea; hipotesi bat egitea, (norbere burua) identifikatzea, informatzea, auresatea; norbaiti zerbait gogoraraztea. Iraganeko, orainaldiko eta etorkizuneko gertaerak kontatzea; iritzi edo ikuspuntu bat arrazoitu eta argudiatzea.
- b) Eskaintzarekin, asmoarekin, borondatearekin eta erabakiarekin lotura duten funtzioak edo mintza-egintzak: zerbait egiteko asmoa edo nahia adieraztea; gonbidatzea, zerbait eskaintzea; laguntza eskaintzea; zerbait egiteko zeure burua eskaintzea; promes egitea; norbait zerbait egitera bultzatzea.
- c) Hartzaileari zerbait eginarazi edo galaraztea helburu duten funtzioak edo mintza-egintzak, mintza-egintza izan nahiz bestelako egintza izan: aholku ematea, abisatzea, jarraibideak ematea; zerbait egiteko edo ez egiteko baimena ematea; agintzea; zerbait eskatzea, laguntza, konfirmazioa, informazioa, jarraibideak, iritzia, baimena, norbaitek zerbait egin dezala; debekatzea; proposatzea; norbaiti zerbait gogoraraztea; ikaratzea; mehatxatzea.
- d) Gizarte harremana ezarri edo mantentzea eta beste pertsonen gaineko jarrerak adieraztea helburu duten funtzioak edo mintza-egintzak: gonbidatzea; gonbit bat onartu edo arbuiatzea; norbaitekin hitzordua jartzea, esker ona agertzea, arreta deitzea; ongietorri egitea; agur esatea; onespina adieraztea; dolumina adieraztea; zorientzea; norbaitez edo zerbaitez interesatzea; deitoratzea; desenkusak eskatzea; nork bere burua aurkeztea; norbait aurkeztea; agurtzea; konplimenduak egitea; erantzuki egitea.
- e) Funtzio edo mintza-egintza espresiboak, egoera jakin batzuen aurrean jarrerak edo sentimenduak adierazten dituztenak: mirespina, poza, estimua, sinpatia, onespina eta desonespina, dezepzioa, interes falta, disgustua, zalantza, esperantza, nahiagotasuna, satisfazioa, ezustekoa, beldurra, tristezia, asperdura, indiferentzia; nahia; egoera fisiko edo osasuneko bat: oinazea, hotza edo beroa, logalea, gosea edo egarria, ongizatea edo ongizate eza.

2.3.2. Eduki eta gaitasun diskurtsiboak.

Hizkuntzaren erabilera ardatz duen hurbilketa batean nahitaezkoa da testua hartzea komunikazio unitate gutxienezkotzat. Komunikazioaren aldetik testu bat baliagarria izanen bada, koherentea izan behar du produzitzen den edo interpretatzen den testuinguruarekiko, eta barne kohesio edo antolamendu bat eduki behar du

ulermena errazagoa izateko eta zer komunikazio dinamikaren barrenean garatzen den islatzeko.

Ikasleek, beraz, behar diren diskurtso gaitasunak bereganatu beharko dituzte testuak koherentziari eta kohesioari begira produzitzeko gauza izateko.

a) Testu koherentzia: testua eta komunikazio egoera elkarrentzat egokiak izatea.

.Testu mota eta formatua.

.Hizkuntzaren aldaera.

.Erregistroa.

.Gaia. Hurbilketa eta edukia. Hitzen aukera, egitura sintaktikoen aukera eta eduki garrantzizkoaren aukera.

.Testuinguru espaziala eta denborazkoa: espazioaren erreferentzia eta denboraren erreferentzia.

b) Testu kohesioa: testuaren barne antolamendua: testu unitatearen hasiera, garapena eta bukaera.

- Diskurtsoaren hasiera: Hasiera mekanismoak (kontaktu hartzea eta abar). Gaiaren sarrera. Tematizazioa.

- Diskurtsoaren garapena:

.Gaiaren garapena:

Gaiari eustea: korreferentzia (artikulua, izenordainak, erakusleak erabiltzea, aditz denboren komuntadura); elipsia; errepikapena (oihartzun lexikoa; sinonimoak, antonimoak, hiperonimoak, hiponimoak, eremu lexikoak); birformulazioa; enfasia.

Gaia zabaltzea: adibideak jartzea, errefortzua, kontrastea eta azpi-gaiak sartzea.

.Gaiaren aldaketa: digresioa; gaia berreskuratzea.

- Diskurtsoaren bukaera: laburpena / laburbiltzea, testu bukaera adieraztea eta testua bukatzea.

- Ahozko diskurtsoari eutsi eta segitzea:

.Hitz txanda, hartu, eutsi eta uztea.

.Laguntzea, ulertu duzula adieraztea, argibideak eskatzea eta abar.

.Intonazioa, ahozko testuari kohesioa emateko baliabide: Intonazio patrioiak nola erabili.

- Puntuazioa, testu idatziari kohesioa emateko baliabide: puntuazio zeinuak nola erabili.

c) Testu tipologia.

- Idatzizko testu hartzaileak:

.Postalak, gutun pertsonalak eta posta elektronikoa.

.Ohar pertsonalak.

.Gonbitak.

.Zorionak.

.Iragarkiak.

.Informazio foiletoak eta foileto komertzialak.

.Sukalde errezetak. Kartak eta menuak.

.Presentsako artikuluak.

.Aisiako agenda eta ikuskizun iragarkiak.

.Horoskopoa.

- .Denbora-pasak.
- .Elkarrizketak.
- .Kantuak.
- .Testu literarioak: ipuinak, narrazio laburrak, alegiak, olerkiak.
- .Irakasleak egindako materiala.
- .Webguneak.
- .Jarraibideak.
- Ahozko testu hartzaileak:
 - .Ahozko testuak, irratikoak, megafoniazkoak eta grabatuak (erantzungailuak).
 - .Irakaslearen eta beste ikasleen esplikazioak.
 - .Eremu pertsonaleko solasak.
 - .Toki publikoetako solasak: dendak, medikuaren kontsulta, informazio guneak ...
 - .Gertaerak, ohiturak, prozesuak kontatzea ...
 - .Jarraibideak.
 - .Debateak eta eztabaidak.
 - .Elkarrizketa laburrak.
 - .Inkestak.
 - .Iragarkiak.
 - .Berriak.
 - .Lehiaketak.
 - .Marrazki bizidunak.
 - .Kantuak.
- Testu produktibo idatziak.
 - .Postalak, gutun pertsonalak eta posta elektronikoa.
 - .Ohar eta apunte pertsonalak.
 - .Gonbitak.
 - .Zorionak.
 - .Iragarki txikiak.
 - .Informazio kartelak.
 - .Jarraibideak.
 - .Objektu, toki eta pertsonak deskribatzea.
 - .Gertaerak, ohiturak, prozesuak kontatzea ...
 - .Datu pertsonalak eskatzen dituzten eskabide eta inprimaki errazak.
- Ahozko testu produktiboak.
 - .Eremu pertsonaleko solasak.
 - .Toki publikoetako solasak: dendak, medikuaren kontsulta, informazio guneak ...
 - .Gertaerak, ohiturak, prozesuak kontatzea ...
 - .Objektuak, tokiak eta pertsonak deskribatzea.
 - .Jarraibideak.

Metodologia

Hizkuntza, gure ikuspuntutik begiratuta, "gizarte elkarreragineko" hainbat egoeratan komunikatzeko balio duen sistema da; egoera horietan hizkuntza sistema hori modu esanguratsuan eta testuinguruarekiko egokian erabiltzen da, hainbat ataza aurrera eramateko.

"Egintzara begirako hurbilketa" hau, Hizkuntzen erreferentzi marko europar bateratuak biltzen duena, izanen da hizkuntzak ikasi eta irakasteko erabiliko den metodologiaren ardatza. Ikasketa hori oinarritzeko, berariazko helburuak abiaburu hartuta diseinatutako atazak erabiliko dira. Ataza horiek egiteko, ikasleek plangintza, betetze, kontrol eta konpontze estrategiak erabiltzen ikasi beharko dute, eta bai diskurtso prozedurak eta ezagupen formalak ere, komunikazio egoeretarako egokiak diren testuak ulertu eta produzitzeko gauza izateko.

Atazek, eta haiekin lotura duten jarduera guztiek, ikaslea eta haren jarduna hartuko dituzte ardatz nagusi. Irakaslearen papera funtsean aurkezlearena izanen da, jardueraren bultzatzaile eta ebaluatzailearena, eta hizkuntzaren erabilera egokia gehiago balioetsiko du hizkuntzaren sistema teorikoa eta zuzentasun formala baino. Erabiliko dugun metodologiak, bada, ikasleari ataza horiek eraginkortasunez egiteko behar duen gaitasun eta trebetasuna eman beharko dizkio.

Eduki mota desberdinak modu integratuan aurkeztuko zaizkio ikasleari, ulermen, adierazmen, elkarreragin, bitartekotza eta haien konbinazioen barrenean. Hizkuntza hutseko edukiak komunikaziorako garraiabide dira. Gramatika eta lexikoa erabiltzea, ikuspuntu honetan, helburu horretarako tresna da, ahal den neurrian arauak indutitzea erabiliz.

Gramatika gaitasunak ebaluatzeko, komunikazio errealeko eta testuinguru batean jarritako egoerak erabiliko dira beti. Hutsak tarteko hizkuntza gisa onartzen dira, eta sistematikoak direnean baizik ez dira kontuan hartuko edo komunikaziora traba egiten diotenean: hutsa aztertzeak ikasleak bere jardunaren gainean gogoeta egin eta hobetzeko balio du.

Era berean, gaitasun soziokulturalak beti atazen bidez bereganatu beharko dituzte. Ataza horietan benetako materialak erabiliko dira, ikasleek ikasten duten hizkuntzaren kulturaren erabilera eta ezaugarriekin kontaktu zuzena eduki dezaten.

Ikaslearengan bere gaitasun berezkoak ez ezik, bere kabuz ikasteko behar dituen ikasketa estrategiak ere garatu beharko dira.

Hizkuntzaren erabilera egokia bultzatzeko irakasleak hainbat ikasketa esperientzia aurkeztuko ditu. Haietan:

- Ikasten den hizkuntza mintzatzen den kulturenganako interesa eta sentsibilitatea sustatuko dira.
- Ikasleak komunikatzeko bere buruarengan behar duen konfiantza bultzatuko da.
- Ikasgelan ikasteko motibazioa handituko da eta
- Nork bere kabuz ikasteko gaitasuna garatuko.

Ebaluazioa

Ikasleak maila honi dagozkion gaitasunak bereganatu dituela joko da, trebetasun bakoitzerako azaldu diren helburu orokor zein berariazkoak iritsi dituenen. Zehetasun gehiago izateko, begiratu hemen:

Especificaciones de las pruebas certificativas de Nivel Básico, Nivel Intermedio Nivel Avanzado: [Resolución 291/2011, de 29 de junio. \(BON nº 157, de 9 agosto 2011\)](#) modificada por [resolución 60/2013, de 18 de febrero \(BON del 8 de marzo de 2013\)](#).

24/2014 EBAZPENAK, otsailaren 7koak, ekainaren 29ko 291/2011 Ebazpenaren bidez onetsitako oinarrizko mailako, erdi mailako eta maila aurreratuko zehaztapenak aldatzen ditu. (BON nº 53, de 18 de marzo de 2014)

Honen arabera, azterketak lau zati bereizi ditu:

MAILA	IRAKURRIAREN ULERMENA			ENTZUNAREN ULERMENA		
	Punt.	Gutxien.	Denbora	Punt.	Gutxien.	Denbora
Oinarrizkoa	15	%60 (9 p)	40'	15	%60 (9 p)	25'
T Mailakoa	15	%60 (9 p)	45'	15	%60 (9 p)	30'
Aurreratua	20	%60 (12 p)	1h	20	%60 (12 p)	45'
C1	15	%60 (9 p)	1h 15'	15	%60 (9 p)	45'
MAILA	IDATZIZKO ADIERAZPENA			AHOZKO ADIERAZPENA		
	Punt.	Gutxien.	Denbora	Punt.	Gutxien.	Denbora
Oinarrizkoa	20	%60 (12 p)	1h	20	%60 (12 p)	15' (bi izangaiak)
T Mailakoa	20	%60 (12 p)	1h 15'	20	%60 (12 p)	20' (bi izangaiak)
Aurreratua	20	%60 (12 p)	1h 45'	20	%60 (12 p)	25' (bi izangaiak)
C1	20	%60 (12 p)	2 h	20	%60 (12 p)	30' (hiru izangaiak) 25' (bi izangaiak)